

2011-09-20

XI Sagar Uzta, Sagarraren jaia Astigarragan



[Sagardoetxea, Sagardoaren Museoa](#)

Irailaren 25an XI. Sagar Uzta ospatuko da Astigarragan. Sagar Uzta, sagarraren festa da eta tolareetako lanen hasiera ospatzen du.



Aurtengo egitaraua honakoa da:

Asteazkena, Irailak 21

19:00 "ERMAÑAMENDIKO TOLAREETAN ZEHARKO IBILBIDE TEMATIKOA" proiektuaren aurkezpena Sagardoetxean.

Ostirala, Irailak 23

19:00 SAGARRAREN KATA GIDATUA eta sagarrekin egindako produktu ezberdinen dastaketa. Izen-emateak info@sagardoetxea.com-en.

Igandea, Irailak 25

SAGARRAREN JAIA Foru enparantzan.

IV. Sagar Uzta Argazki Rally Digitala. Izen ematea 10:00-11:30etara Foru enparantzan. Oinarriak eta oharrak www.sagardoetxea.com orrialdean ikusi.

I. Sagar Tarta Lehiaketa. Tartak 12:00ak aurretik Udaletxeko arkupean entregatu behar dira. Oinarriak eta oharrak www.sagardoetxea.com orrialdean ikusi.

11:00-13:30 Haurrentzako tailerrak: margo eta buztin tailerra eta kupeleko lanak.

11:00-14:00 Sagarraren azoka:

- Erakusketa, erakustaldiak, dastaketa eta salmenta.

- Sagardo dastaketa.

11:00-14:00 2011 uztako lehen muztioaren elaborazioa.

- Sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea.

12:30

- Sagar dantza.

- Kirikoketa.

- Ekoiztutako muztioaren dastaketa.

- Txalaparta.

13:30 I. Sagar Tarta Lehiaketako sari banaketa.

14:30 Herri bazkaria Gure Izarra elkartean.

17:30 Sagardogintzan oinarritutako herri kirolak Foru enparantzan.

